

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko maiatzak 22, 151. zenbakia

ARKOk argitaratua Udalaren laguntzaz




**FRANZ
BURKHART**
Tigre artean hazi
eta bizi den gizona

Gimnasioa

Gorputzaren kultoa

Joseba



A R R A S A T E
K I R O L A K

Kontzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12



San Viator Ikastola

**50 urtez pertsona osoa eta
pertsona bakoitza hezitzen**




2. Mallako Hezkuntza Derrigorrezkoa (12-16)

- * D, B eta A Ereduak
- * Teknologia (Informatikarekin)
- * Laguntza gela
- * Orientazio eskolarra edota lanerakoa
- * Ikaslearen jarraipen pertsonalizatua

Goi Batxilergoak (16-18)

- * Ereduak: D eta A
 - * Batxilergo motak:
 - +Natur Zientziak
 - +Giza Zientziak:
 - Letretako adarra
 - Adar administratiboa
 - * Ordu-tegi etengabea (8:00/14:30)
 - * Tutoretzak arlo bakoitzean
 - * Orientazio prozesu sakona
-
- * **Hezibideko partaidea**
 - * **Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko kidea**



Bizigiros Osasuna Moduloa

Batxilergoa bukatzean beste aukera bat. Praktika-saioak entpresa eta laborategietan

Matrikula epea zabalik

**Arrasate Pasealekua 10
Telefona: 790411**

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Maketazioa:

Goio Arana

Publizitatea:

Kepa Olliden

Tfnoa: 77 08 15

Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertsoeskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Maiatzarekin batera

“E ta bapo...” irakurri genuen joan den astean eta gertatua da hala guretzat iragarritakoa zen amaiera. Jose Mari Velezek agortu ditu Arrasate Presse-rako irekita zuen iturriaren urak eta orain putzu berrietara jo beharrean aurkitu gara.

Arrasaten astero argitaratuko “omen” zen aldizkari hartan “noizbehinka idazteko aukera” eman ziotela esanez hasi zuen Josemarik bere Luma Zorrotza 1988ko abenduaren hasieran eta “Arrasate Prest” dagoela esaten zien aldizkariaren arduradunei. Baina “noizbehinka” hori “astero” bihurtu zitzaion eta Arrasate Press-erako Velez jarri zen “Prest”. Prestutasun hori eskertzea baino ez gure aldetik.

“Galduz gero ikasten omen da” 10.ean, “Lehengo lepotik” 96.ean, “Arrasate, 5.000 urte barru” 90.ean, “Zeruko bideetatik” 120. ean, “Espioiak Arrasaten” inuzenteen alean ...aleritzi-

ra hartutako tituluak dira baina behar-bada irakurle leialarentzat hori baino gehiago. Estilo jakina eta gai zabalak, laneko bidaietan trenean, edo hotelen bateko gelan, irakurle arrasatearrarekin akordatuta idatzitako kolaborazioak ziren.

Luma Zorrotzari punta zorrotzeko garaia iritsi da eta udaberriak eskuartetik ihes egin aurretik, lore berri bat ekarri nahi genizueke. Kolore eta usai ugariko lorea, orri bakoitzean taju diferentea ekarriko duena. Mondragoen badago idazteko gai den jenderik eta horietako batzuk harrapatze aldera, taldetxo batek egingo du kuku lehio honetatik. Eta alferrik da izenak iragartzen hastea, jakiari saltsa kentzea bezala da eta. Aukeratutakoak zergatik aukeratu ditugun, euren idatziek esango dute aurki eta idazleak bere lanaren bitartez ezagutzeko aukerarik ez nioke inori kendu gura. Datorren ostiraletik aurrera, gusto baduzue.

ARANTZAZU LOIDI

Memesa

79 42 22



EE.BB.

Parlance

- Ikasi ingelesa “rancho” amerikar batean.
- Gazte eta helduentzako ikastaroak Carolina del Norten famili-giro sanoan.

Informazioa: Ferrerías, 11 etxabea.
Tfnoa: 77 06 83



IRLANDA

Parlance

- Ingelesko ikastaroak eta kirola gazte eta helduentzat.
- Arrasatek bertatik lagunduta.
- Familia bikainak.

Informazioa: Ferrerías, 11 etxabea.
Tfnoa: 77 06 83



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84


**MUXIBAR
TABERNA**

**Ezin hoberik
inguruan topatu!**

Bizkaia Etorb.
Tfnoa: 79 09 75
ARRASATE

**ARAMAIO
okindegia**

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

**Lan munduan ere
kultura ekologikoaren alde**

Hain ezkor, depredatzaile eta desorekatua den gizarte hau aldatze asmoz gabiltzan herri mugimenduon elkarlana zehaztu behar egin litzateke. Atzean gelditu dira mugimendu sindikalak bultzaturiko industrialismo, basatia, neurri gabeko produktibismoa naturari egiten zaion kalte ekologikoa kontutan hartu barik. Zer diote egun langile eta sindikatu-kolektiboek industrialismoak inguru-nerari eta bertan bizi garenoi egiten digun kalteaz?

Interesgarri deritzogu langile- mugimenduak zenbait arazotaz eztabaidatzea, beste batzuen artean:

- Egungo eredu produktibistak ez du kontutan hartzen dauden errekurtsoak mugatuak direla; garapena lasaitu egin beharko litzateke, eta garapen neurtua litzateke egokiena.
- Energia kontsumo neurrigabea baretu egin beharko litzateke, energia berriztagarrien erabilera proposatzen dugularik, eta ezezko borobila indar nuklearrari.

- Produkzio prozesuan teknologia gogor eta gai toxikoen erabilera ahalik eta gehien jeistea industriaren hondakinen kutsadura kontrolatzea.

- Osasunaren aldeko borroka etengabeak badu zerikusirik ingurugiroaren defentsarekin.

Eztabaida ez da nahiko, egungo egoera hobetzearen beharrezko da zenbait neurri bultzatzea:

- Sindikatuek hainbat enpresa kutsakorren birgaiketa bultzatzea beharko lukete denon mesederako.

- Garaia da ingurugiroarekiko eragin-estudio fidakorrak eskatu eta inpartzialitate probaturiko erakundeei eragiteko.

- Beharrezko ikusten dugu enpresan osasun laboral delegatua ezartzea, lan eremutat ingurugiro arazoa, kutsadura eta hondakinak lituzkeelarik. Hauek dira gogoratzen zaizkigun hainbat gai, lan munduan kultura ekologikoa zabal dadin

asmoz. Kontutan harturik Deba Garaian enpresa gehienek neurri hauei uko egiten dietela, arazoa larria iruditzen zaigu.

Kontseilu Sozial, E. Komite, Sindikatu eta abarri, arazo honetaz lanean has daitezen dei egiten diegu hemendik.

*MIKEL OLABE
EKIKO PARTAIDEA*

Musakolan gertatutakoa

Enpresari lizentziatu gaztea naizen aldetik, Musakolako jaietan gertatutako gauza baten berri eman nahi nioke Arrasateko herriari.

Lehenik eta behin, astoaren irudia duten txapak salgai jartzea proposatu nion jai batzordeari. Ezetz esan zidatez, neuk ateratzea bururatu zitzaidan eta esan nienean oztoporik jarri ez zidatenez, taberna guztietan banatu nituen txapak, eta pozez hartu zituzten gainera. Baina arratsalde horretan bertan Antton Bedia, Arana eta batzordeko beste bat txapak eta kartelak kentzen eta tabernariak mehatxatzen saiatu ziren. Beranduago, eurekin eztabaidatu eta gero hurrengo egunean bilera bat egitea proposatu zidaten, hurrengo egunean arratsaldeko betan akordio batetara iristeko; baina arratsaldeko 4etan etxera ekarri zizkidaten txapak, bazekiten eta lapurretara egin zutela eta sekulakoa etorriko zitzaizela gainera. Txapak gainetik kendu zituzten, tabernetan bakarrik banatuz, tabernariak mehatxatu eta ikaratuz.

Beraz, horrela daude gauzak. Demokrazia estatu batetan gaudela sinisteak ere lanak ematen ditu. Badut lizentzia komertziala eta saltzeko eskubide osoa dut.

Musakola auzoaren jaun eta jabe direla pentsatzen dute eta gainera txapek karakterizatu egiten dituzte eta eurak direnaren irudia ematen dute, izan ere, akordio batetara iritsi bagina ez zen horrelakorik gertatuko.

INAKI MUÑOZ ABERASTURI

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Zer eritzi duzu alkoholemia kontrolez?



**Jaime Hernandez
(Langilea)**

Uste dut istripuak galarazteko neurri guztiak hartu behar direla; beraz, ados nago alkoholemia kontrolekin, baina ez hiri-barnean egiten direnekin.



**Rosa Varela
(Etxekoandrea)**

Ez didate sekula egin, baina desiatzen nago ea noiz tokatzen zaidan. Ondo daudela uste dut, baina jendea matxakatu barik.



**Elvira Ariza
(Ikaslea)**

Bai, ondo daude, mozkorturik gidatuz gero norbera hil edo besteren bat akatu daiteke.



**Haitz Arrieta
(Ikaslea)**

Ondo daude jendea mozkortuta dabilenean istripurik egon ez dadin.



**Fernando Kapelastegi
(Langilea)**

Horixe ondo daudela, horiek sarri sarri egin beharko litzateke, premiazko gauzak dira.



**Sonsoles Barroso
(Ikaslea)**

Ondo daude gero eta istripu gutxiago gerta dadin, baina presaka eta formal dabilenari traba besterik ez diote egiten.



ARRASATEKO UDALA

IRAKASLEEN KONTRATAZIOA

Arrasateko Udalak, Euskaltegirako 6 (sei) irakasle kontratatu nahi ditu hiru urterako.

- Hautes-prozesuaren oinarriak Udaletxean jaso daitezke.
- Instantziak aurkezteko epea ekainaren 1ean (astelehena) amaitzen da.

Arrasaten, 1992ko maiatzaren 15ean

Alkatea

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZ GORRIA

Bergara	76 55 76
---------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZAK

Arrasate	79 71 99
----------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEAREN ZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTEARRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------	----------



22

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Aqui, el que no corre... vuela" (7-9.30).
- ASA Elkartearen Asanblada Nagusia, Monterronen arratsaldeko 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

23

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "La familia Addamo" (5-7.30-10)
- Arrasate - Bergarara martxa, sindikatuak deituta, goizeko 10.15etan.
- Billar txapelketa Gaztetxean, arratsaldeko 4etan.
- Umeentzako bideo - emanaldia: "Robocop" arratsaldeko 4.30etan Monterronen.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

24

IGANDEA

- Zinea: Alai: "La familia Addamo" (5-7.30-10)
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

25

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "La familia Addamo" (7-9.30)
- Al-Andalus-eko aste kulturala: Marrazki bizidunen pelikula eta txokolate eta txurroen txapelketa.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

26

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "La familia Addamo" (7-9.30)
- San Viator Ikastolako ohizko batzar nagusia, San Viatorren arratsaldeko 6.15etan
- Al-Andalus-eko aste kulturala: Expo-ari buruzko mahai-ingurua, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

27

ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

28

OSTEGUNA

- Al-Andalus-eko Aste Kulturala: Federico García Lorca-ri omenaldia.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

Kirol Agenda

Futbola

- Emakumezkoen Mondra eta Anaitasuna taldeen arteko partidua, larunbatean arratsaldeko 4.15etan Atxabalpen.

Txirrindua

- Deba Garaia Txirrindulari Elkarteko partaideen irteera, 67 kilometrotako ibilbidea. Irteera goizeko 9.15etan trenaren geltoki zaharraren aurrean.

Liburu berriak

Monterron liburutegiko liburu berriak

• Literatura

Barnes, Julian: El loro de Flaubert (nobela)

Mendoza, Eduardo: El año del diluvio (nobela)

Woolf, Virginia: Cartas a mujeres

Ezkiaga Lasa, Patxi: Charles Moulay (nobela)

Golding, William: Eulien ugazaba (nobela)

Merino, Jose Maria: El centro del aire (nobela)

Carrington, Leonora: El septimo caballo (narrazioak)

Otamendi, Jose Luis: Poza eta gero (poesia)

Gil Bera, Eduardo: O Tempora! O mores! (saioa)

Perurena, Patziku: Harriplatan ezkututzen zeneko apo tipiaren burutazioak.

Riviere, Margarita: Lo cursi y el poder de la moda ("Espasa Mañana" Saio Saria, 1992).

• Bestelakoak

La honda de David: Cuba frente al Nuevo Orden

Sarmiento, Carmen: Viajes a la marginación

Guía 1992 Campings España-Europa

Expo '92: Guía oficial Pequeños hoteles con encanto: Francia/Italia

Bestalde, aipagarria da Jakinren 69. zenbakia kaleratu dela dagoeneko, Arrasaten burutu ziren Herri-Prensa ihardunaldiei eskainita.



Al-Andalus-en kultur astea

Datorren 25etik 31ra ospatuko da

Al Andalus Elkarteak, aste kulturala ospatuko du datorren astean. Astelehenean umeei zuzendutako marrazki bizidunen pelikula. Asteartean, Expoari buruzko mahainguru bat burutuko da. Ostegunean Federico García Lorcan omenaldia egiteko, Ramon Perez Flores-ek poesia emanaldi bat eskainiko du. Ostiralean partxis finala eta txapelketa gastronomikoa izango da. Larunbatean, goizeko 10etan txirrindulari froga, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasate herriak zeharkatuko dituena. 12etan ezkondu eta ezkongabe arteko futbito partidua, arratsaldeko 6.30etan Pako Gerreroren flamenko kantaldia eta Al-Andalus koroaren emanaldia izango dira. Igandean, 11etan umeentzat marrazki lehiaketa egingo da eta ondoren arubata aldera jubilatuei omenaldia egingo zaie eta Pako Prieto kantariak hartuko du parte Eskoriatzan. "Rocio la Cenicienta" antzerki obra aurkeztuko da. Bukatzeko 7etan "Alegría de la tierra"-ren emanaldia.

Omenaldia

• Ikastola

29an, Ikastolaren omenaldia izango da bere garapenean esanguratsuak izan diren hainbat pertsonari eta erakunderi. Gazteluondo Ikastolako Kirolegean izango da, arratsaldeko 7.30etan.

Jaiak

• Afaria

San Frantsisko Xabier Ikastolak antolatuta datorren 29an, Musakolako kirolegean, nahi duten guztiei zabaldua herri afaria egongo da. Intere-

satuok, Hire liburudendan eta Monte tabernan eros dezakezue txartelak, 1.400 pezeta balio dute. Ez ahaztu 25a baino lehen erosi behar direla. Bestalde, afalostean Tapia eta Leturiak alaituko dute giroa.

• Antzerkia

Datorren 30ean Picor taldearen "Naftalina" antzezlanak ikusteko aukera izango dugu. Eskoriatzako herriko plazan izango da arratsaldeko 8.30etan. Obra hau bertan ospatzen ari den antzerki hilabetearenekitaldien barruan sartzen da eta antolatzaileek, orain arteko arrakasta mantentzea espero dute.

Txapelketak

• Billarra

Larunbatean, hilak 23an bilar txapelketa egongo da Gaztetxean. Arratsaldeko 4etan hasiko da eta parte hartu nahi duzuenok 1.000 pezeta ordaindu beharko duzue. Sariak hiru lehengoentzat izango dira, 15.000, 10.000 eta 5.000 pezetakoak.

Erakusketak

• Ikastola

Pasa den 19tik eta datorren 29ra bitartean, "Ikastola 25 urteetan zehar" deitutako erakusketak dago zabalik. Hiru atal bereizten dira: Ikastolaren historia, Ikastolari buruzko bideoa eta Ikastolarekin jolasean.

Txirrindularitza


• Gipuzkoako itzulia

Igandean goizeko 7.30etan, Aretxabaletako Murruxiko Mendizale Elkarteak antolatuta Gipuzkoako Itzulia egingo da. Irundik hasiko da eta Donostian bukatuko da. Apuntatzeko Urbaltzen edo lokalean. Bazkideek 1.000 pezeta ordaindu beharko dute eta besteek 1.200. Apuntatzeko epea 28an bukatzen da.

Bilerak

• Batzar Orokorra

Gaur ostirala, arratsaldeko 7.30etan, ASA Elkarteak Asanblada Nagusia egingo du Monterongo hitzaldi aretoan. Egitarauak aurreratzen duenez, urteroko ekonomi balantzea egin eta gero, taldeari buruzko hainbat xehetasun aztertuko dira.



“Egun batzuk barru Pilotarien Batzarra ospatuko da Arrasaten eta erabat horretan ari gara lanean. Ekintzen artean, Udaletxeko harrera, meza nagusia, asanblada, ondoren eskolako torneoko pilota partiduak, eta azkenik anai arteko bazkaria. Ilusio handiz gaude. Gainera Udala ere topera ari da laguntzen. Gauza txar bakar bezala, frontoiaren inauguraziorik egin ezina dago, baina zer egingo zaio. Jaia handia izango da”.

(Arrasateko Pilota Elkateak Deia egunkarian)

“Dena den, eta Isidro jakin ahal izan duenez, lan horretan hogeituroko hitz eder asko erabili arren, hemengo nekazal politikan lehengo lepotik burua, eta bertako baserritarrek aspalditik esan eta esan ari ziren hainbat gauzataz gain, ezer berri gutxi. Eta Europako Nekazal Politikaren norabide 'berriak' onartzearekin, euskal baserritarrentzako jipoi handiagoa”.

(Maite Aristegik Egunkarian)

“Autogestio-eskola izan behar du kooperatibak. Eta gaur egun, esperientzia abiarazi zenetik 36 urte igaro ondoren ere, parte hartzera dei egin behar dugu. Bazkide xehe eta arruntei dei egin behar zaie, gogoraziz botua ematea ez dela beti eritzia ematea. Guztion kritikaren beharrean dago kooperatiba. Zuzendariei ere dei egin behar zaie, beti gogoan izan dezaten bazkideen hezitzaile izan behar dutela autogestioaren ikaskuntza eta praktika zail honetan”.

(Jose Ramon Elorzak TU-Lankide aldizkarian)


Drogaren arazoa konpontzeko errepresioa izan daiteke irtenbidea?

Ez, nire ustez droga-aren arazoarekin bukatzeko onena legalizatzea izango litzateke. Horrela droga trafikoa desagertu egingo litzateke, eta neurri handi batean delinkuentzia ere bai. Badakit drogen legalizazioa arriskutsua izan daitekeela, droga eskurago jartzean baliteke kontsumoak eta kontsumitzaileen kopuruak gora egitea eta. Dena dela, uste dut droga legala izan edo ez izan, beharra edo gogoia duenak berdin berdin erosiko duela. Gizakia berez librea da, baina drogak menperatzen duenean askatasun hori galdu egiten du eta droga lortzeko edozer gauza egin dezake.

Errepresioa ez da bidea. Drogaren menpe bizi eta aldatu nahi dutenei, laguntza eskaini behar zaie, alternatiba berriak eman. Drogaren menpean jausteko arriskua dutenekin, berriz, prebentzio eta heziketa lana egin behar da, informazio gehiago eskaini eta denborapasarako alternatibak eskaini. Drogak hor daude, baina hartu edo ez norberaren aukera da, eta informazioak eragin handia izan dezake horretan.

Legeari dagokionez, ezin daiteke esan lege prebentiboa denik, argi dago eta trafikante txikien bila dabiltzala, noiz behinka aurpegia garbitzeko. Gai garrantzitsuenak ez dira ikutu ere egiten, botereak handiak babestu egin nahi ditu eta jende marjinatua alde batera utzi. Ongizate mailan lege berriak ez du aportaziorik egiten eta kontuan hartu behar da drogadikzio mota asko dagoela, alkohola esaterako.

JOSE MIGUEL VEGA,
LIZARRA ELKARTEKO PARTAIDEA.



**OSORIK
PUB**
Ignazio Zuluaga, 4

Erdiko kale. 79 19 37
ILEA
Ferrerias. 79 87 62

**ESTRELLA
taberna**
Txanpinoiak eta pintxo morunoak dera gure espezialitateak.
Elkano, 3 Tfnoa: 79 20 82

E · S · T · U · D · I · O
I · N · T · E · R · I · O · R · I · S · M · O · A
• Dekorazio proiektuak
• Lokal komertzialen eta etxebizitzaren eraberrikuntza
• Gremioetako ekipo osoa
• Diseinu orokorra
Garibai, 3 bis
ARRASATE
Tfnoa: 77 01 44

**ARRASATE
PRESS**

77 05 65

Bergara

- "Bergara hiria" saria

"Bergara hiria" lehiketan Euskal Herrian bizi diren argazkilari guztiek parte har dezakete, kolorez nahiz zuri-beltzean. Bergarako giroa, arkitektura edo paisaia onena duen argazkiarentzat sari berezia ere izango da. Sail bakoitzean 20.000, 15.000 eta 10.000 pezetakoak izango dira hiru lan onenentzat.

- Aktak euskaraz

Begarako Udalaren bilera desberdinetan euskara erabiltzea onartu zen asteleheneko plenoan. Proposamen honen bidez honako adierazten zen: herritarren eskakizun eta eskutitzak euskaraz egiten badira, Udaletxeko barne zirkuitua eta Udalaren erantzuna ere euskaraz emango dela.

- Toki Ederren jaiak

Astebukaera honetan ospatuko dira Toki Ederreko jaiak. Egitarauan jartzen denez, ostiralean hasiko dira eta besteak beste, larunbat gauetz Zezen suzkoena aipatzen da.



Aramaio

- Trikitilari txapelketa

Datorren igandean, hilak 24, Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketako Bigarren Kanporaketa burutuko da Aramaion. Arratsaldeko 6etan hasiko da jaiak, pilotalekuan. Zaldibar 92-ko txapelketaren barruan sartzen da eta han ospatuko da finala maiatzaren 31n. Kanporaketa hauek iazko txapelketan ere Aramaion izan ziren eta orduan besteko jendea biltzea espero da.

- Expo-rako autobusa

Aramaioke udalak Sevillako Expora joateko autobusa antolatu du. Ekainaren 24, 25, 26 eta 27an izango da eta interesatuek udaletxean eman dezakezue izena. Bidaiari buruzko informazio gehiago jakiteko ere, bertara zuzendu.

Oñati

- Garbiketa zerbitzu pribatua

Azken plenoan garbiketa zerbitzuak privatizatzea onartu zen. H.B., LAB eta ELAko ordezkariak kontra botatu zuten eta langile hauek Udaleko lantaldean sartzea eskatu zuten. Azkenik enpresa baten zerbitzuak kontratatzea onartu zen.

- Txopekuaren inaugurapena

Pasa den astebukaeran inauguratu zen Txopekua tiro kanpo berria. Bertan, kargu politikoetako ordezkariak izan ziren.

Aretxabaleta

- Mehagintza ikerketa

Udaletxean izandako azken gobernu batzordean, Industri eta Energia Sailak eginiko eskakizuna aztertu zen. Eskakizun honen bidez, Aretxabaleta, Oñati eta Eskoriatza inguruetan mehagintza ikerketak egiteko eskatu dute. Ikerketan interesatutak Udaletxera jo dezakete

**BAINUJANTZITAN
ESPEZIALISTAK**

NEREA

Erdiko kale, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 13 43



Taldean dirulaguntzak

Joan den astelehenero Gobernu Batzordean kultur taldeak aurten jasoko duten dirulaguntzak erabaki ziren. Kopuru horiek ondorengo hauek dira:

- Zientzia Elkarteak, 200.000 PTA.
- Irratizaleen Kultur Elkarteak, 100.000 PTA.
- Komite Internazionalistak, 230.000 PTA.
- Zeramika Eskola, 400.000 PTA.
- Al-Andalus, 275.000 PTA.
- Tunantes del Norte, 300.000 PTA.
- Besaide, 95.000 PTA.
- Trikitixa Eskola, 600.000 PTA.
- ASA Elkarteak, 150.000 PTA.
- Gaiteroak, 80.000 PTA.
- Emakumeen Asanblada, 100.000 PTA.
- Yoga Elkarteak, 60.000 PTA.
- Akordeoi Orkestra, 100.000 PTA.
- Lore Gazteak, 235.000 PTA.
- Txikitxu, 285.000 PTA.
- Tailaginen Elkarteak, 220.000 PTA.
- Goikobalu, 2.500.000 PTA.
- Askapena, 100.000 PTA.

ONGIETORRIA JAIÖBERRIEI

- Juan Alamo Wirsching Sanchez*, apirilaren 30ean.
- Iban Arana Garcia*, maiatzaren 11n.
- Joana Fatima Altuna Balanzategi*, 13an.
- Iker Agirre Aginalde*, 13an.
- Ane Usobiaga Eguzkiza*, 14an.
- Gorka Arregi Hernandez*, 15ean.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

- Jesus M^a Martin Palenzuela & M^a de los Angeles Gallego Caballero*. Maiatzaren 2an, elizaz.
- Andoni Ancin Lopez & M^a Begoña Cuevas Gutierrez*. Maiatzaren 16an, zibilez.
- Jesus M^a Ignacio Sampedro & M^a Concepción Tamayo Victor*. 16an, zibilez.

Txandaka

BAI HIRI-BIRGAIKUNTZARI

Geure burua ure Gudalerrian kontestuan kokatzen badugu, imajina dezagun 1955etik 1970era doan aldian ia 3.000 familia berriri alojamendua eman behar izatean sortu zen hirigatazka.

Hausnarketa honek aldi horretako etxebizitza gehienak zein baldintzatan eraiki ziren ulertzeko, eta ez justifikatzeko, balioko digu.

Orduan indarrean zegoen Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako araudia azkeneraino eramaten zen, bere ekonomi errentagarritasuna optimizatzeko, erdi-epera zeuden gizarte mailako errentagarritasun-konpromezuak kontutan izan gabe.

Guzti horregatik, gaurko egunean, honela aurkitzen gara: denborarekin gertatu den zahartze-prozesuarekin batera, prestazio eta zerbitzuetan desfasea jasan duela, baina eraikuntza progresistago bati legokiokeena baino askoz haundiagoa da desfase hori.

Demografia hazkundera izandako aldaketak, etxebizitza berrien nahitaezko premia ez edukitzeak, orain 25 eta 50 arteko urte duten etxebizitzekin zer egin planteatzen du.



Kontxi Malet (*)

Horrelako etxebizitzetan jarduteko aukerak bitan laburbil daitezke: lehen, dauden akatsak bakoitza bere aldetik konpontzen jarraitzea; bigarrena, obra-gaikuntza konprometitua eta koordinatua egitea.

Jarduera bi hauek, elkarren aurka ez badoaz ere, ez datoz bat

sakon-sakonean, lehenak atzeraka doan prozesu ekidinezin batera bideratzen duelarik, gero ordezkapen-politika batean bukatzeko, horrek dakarren gastu sozialarekin.

Hiri-birgaikuntzan sinisten dugunok, bigarren jardueraren alde gaude, gestio dinamikoa eta zabalgarriaren politika baten alde, korporazio-iharduketak eta iharduketa konprometituaq burutzeko, auzotarrekin kolaboratuko duena.

Baina ez dezagun ahaztu iharduketek globalak izan behar dutela. Etxebizitza ezin da bere inguruetik isolatu: etxebizitza edifizioen barruan doa eta edifizioak auzoetan; behar-beharrezkoa da birgaikuntza eremuak mugatzea; hedadura-auzoetarako nahikoa kontrastaturik dagoen antzerako estrategia egin daiteke.

(*) *SOZIOLOGOA*



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

ESTETIKA ZENTRUA

Loditasuna

Dieta pertsonalizatuak

Zelulipolisiak kentzea

Aurpegirako tratamenduak

Santa Kruz, 24-1^a (1^a C eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54



Prensaurrekoan, CCOO, LAB, ELA, ESK-CUIS eta KTko ordezkariak izan ziren.

Greba orokorra prestatzen

Sindikatuak 27rako ekintzak aurkeztu zituzten

Datorren maiatzaren 27ko greba deialdia dela eta, asteazkenean Deba Garaiko CCOO, LAB, ELA, ESK-CUIS, eta KT-ko ordezkariak prentsaurrekoa eskaini zuten Monterronen. Aipatutako egunean Euskal Herrian burutuko diren grebaren helburuak, sindikalistek diotenez, greba eskubidea aldarrikatu eta industriaren desmantelamendua eta dekretazoaren aurka protesta egitea lirateke.

Zentzu horretan grebarako deia egin duten bost sindikatoek ekintza bateratuak antolatu dituzte, larunbatean hasi eta asteazkenean amaituko direnak. Bihar larunbata, Arrasaten hasi eta Bergaran bukatuko den martxa burutuko da. Martxari goizeko 10.15etan emango zaio hasiera eta Bergarara iritsi eta gero, manifestazioa egingo da, eguerdiko ordubatean.

Bestalde, astelehenean, hilak 25, lantegi guztietan asanbladak egingo dira,

gobernuak ezarri nahi dituen neurriek izan dezaketen eraginari buruzko informazioa eman eta 27rako erabakiak hartzeko. Greba egunean, informazio piketeak egingo dira eta eguerdiko hamabietan Bergaran eta Arrasaten manifestaldiak burutzeko asmoa dago. Pike-teak direla eta, sindikalistek Ertzantzarekin arazoak gertatzea posible izan zitekeela esan zuten, piketeen lana informazioa ematea besterik ez bada ere.

Horretaz gain, grebari buruzko informazioa emateko, aipagarria da kooperatiba guztietako kontseilu sozialekin bilerak egiteko asmoa dagoela. Zentzu berean, Deba Garaiko dendarien artean grebaren arrazoiak azaltzen dituen paper bat banatuko da, horiek ere 27ko ekintzetan parte har dezaten. Bukatzeko, esan behar da UGT sindikatuak, greba onartzen badu ere, oraindik ekintza bateratuetan parte hartzeko erabakirik ez duela hartu.

Usteak uste

Kooperatiben munduan zerbait mugitzen ari da, behintzat Fagorreko asanblada orokorretan izan diren istiluak kontuan hartzen badira. Guztiona omen den negoziario goiko eta behekoen arteko harremanak hain garrantzak izatea ez da seinalea ona. Desadostasunak onar daitezke, eta neurri batean komenigarriak ere badira, baina oso ondo omen dihoan negoziarioan, atzerritar askorentzat eredu bihurtu omen den negoziario eta, garai batean behintzat, giza-harremanetan oinarritutako negoziario horrelakorik gertatzeari, gutxienez tristea adjetiboa erantsi behar zaio.

Egia esan, asanbladetan gertatutakoari buruzko informazio zehatzik ez daukat, entzundakoak bakarrik. Izan ere, asanblada horietan, kooperatibek duten informazio filtroa martxan jartzen da: "Lehen bost minutuak grabatu ditzakezu" edo "Argazkia ateratzeko aukera izango duzue" moduko esaldietara ohituta gaude komunikabideetan lan egiten dugunok. Normala deritzot, etxeko kontuak etxean eta etxeko artean konpondu behar dira eta. Baina aurreko esaldiak entzun eta egun batzuetara eskuartearen jasotzen den txostenak garrantzatsuna botazio neutro batean laburtzen duenean, eta informazio neutro hori irakurleei era neutro batean ematen didean zuzen ote nabilen galdetzen diot neure buruari.

BEÑARDO KORTABARRIA

ITURRIOTZ taberna

**GIRORIK
JATORRENA !!**

Tfnoa: 79 16 04



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

AEDk 1.000 bazkidetara iritsi nahi du

Atzo bertan AEDko arduradunek, bazkide kanpaina aurkezteko, prentsaurrekoa eskaini zuten. AEDkoek adierazi zuten gaur egun 620 bazkide daudela elkartean baina San Juanetarako 1.000 bazkide izatera iritsi nahi luketela, euskararen normalkuntzan bide gehiago urratu ahal izateko.

Bazkide-kanpainaren barruan ekainaren 7an, ekitaldi berezi bat burutuko da, Miren Azkarate euskaltzain berria herrira ekarri eta euskararen alde bizi izan diren pertsonaia batzuei omenaldia eskaintzeko asmoa dago eta Errekonozimendu ofizial horretan euskara edo euskal kulturaren alde lan berezia egin dutenak AEDko Ohorezko Bazkide izendatuak izango dira.



INEMeko langileak eta ikusle batzuk astelehenean lehenengo orduan

INEM ez da leku berean zabalduko

Erasoa dela eta salaketak PSOE eta HBren artean

Joan den ostiralean manifestazio baten eragindako sutearen ondorioz, INEMeko bulegoaren atea ez dira berri zabalduko, konponketa lanak 50 milioi inguru balio dezaketela adierazi digute eta Donostiako INEMeko arduradunek. Hori dela eta, INEMekoak Bergara edo Oñatin koka daitekeen lokal berri baten bila dabilta. Galerei buruz, aipatu behar da paper guztiak galdu direla eta ondorioz kalte guztiak banan banan dei egingo zaiela, berri ere behar den dokumentazioa aurkez

dezaten. Orain, INEMera joateko beharra izanez gero, normalean Arrasateko bulegora joaten zirenek Eibarkora joan beharko dute.

INEMeko sutea dela eta, Arrasateko PSOE-ek komunikabideei ohar bat zabaldu zien, Alkateari eta HB zinegotziei sute horren erantzukizun zuzena leporatuz. HBko zinegotziek prentsaurrekoa eskaini zuten, gertatutako istiluekin zer ikusirik ez zutela esanez eta istiluak Salto del Negroko gose-grebaren tesuinguruan kokatuz.

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



**Umeentzako
moda**

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE Tfnoa: 79 97 86

NAROKI

Urrezko bitxiak

NAROKI

Opariak, Jostailuak, Liburuak,
Paperdegia

Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47

Pedrotxo eta Zabarte egarri eta gose-greban

Saiatu arren senideek ezin izan dute gartzelako zuzendariarekin hitz egin

Pedro Guridi eta Jesus Mari Zabartek, Salto del Negron daudenek egarri eta gose-greban daude. Angeles Arozena, Pedro Guridiren ama, Kanariar Irletatik etorri berri da.

Bisita baten historia

"Kanarias-era iritsi nintzeanean semea moduloz aldatu zutela esan zidaten. Bisitatzera joan nintzen, moduloz aldatu eta gero lehen bisita edozein egunetan egin daiteke eta. Hala ere, ez zidaten utzi, inor sartzen ez lagatzeko agindua zutela eta. Ostirala zen hori, eta asteartera arte ez nuen semea ikusi.

Semea animoz ondo dago, baina fisikoki jota: luze luzea, argal argala, ahotsa eta bista bajatuta. Arrastaka agertu zen, larri-larri. Ez dakit zenbat pisatzen duen, baina dagoeneko ez dauka kilo asko galtzeko. Egun batzutan ura edan barik egon zen eta koliko bat eman zion. Sendagileek ziotenez zortea izan zuen bizirik ateratzearikin. Buruko edo gorputzeko



Pedrotxoren gurasoak

paralisia izateko arriskua zuela esan nion eta erantzun zidan berak bazekiela zertan zebilen, argi zuela horrela ezin zela bizi.

Zuzendariarekin hitz egiten saiatu gara baina ez dugu lortu. Instantziak bete ditugu, faxak bidali.... Egunero, 8 lagun goizeko 9etarako joan gara gartzelara, baina egin ahalak eginda ere ez dugu zuzendariarekin hitz egiterik lortu. Beti aitzakiaren bat zuen ez agertzeko.

Hori dela eta, Kanarias osoan ibili gara, salaketak jarri ditugu, hango arartekoarekin

hitz egin dugu baina ez digu ezer esan. Azkenik gartzeletako zainketaz arduratzen den epailearekin ere, hitz egin dugu, baina presoen aurka egiten den guztia legala zela eta gartzela barruan giza-eskubideak betetzen direla erantzun zuen.

Hori lagun artean ondo eramaten da. Gero etxera etorritakoan, semea han gelditu dela pentsatzen da eta buruari bueltaka hasi. Ikusi egin behar zer gertatzen den".

Medikuak dioena

Egoera dela eta, Gabriel

Elorriaga Nutrizioan espezializatutako sendagileak bere eritzia eman du Arrasate Press-entzat. "Arzoa likidorik ez hartzetik etor daiteke, 72 ordu edan barik egonda shock bat gerta daiteke eta. Jakiei dagokienez, esan behar da ez jateak, behin hila-bete pasatu eta gero, kalteak eragin ditzakela bihotzaren erritmoan, muskulouetan, guntzurrunetan... azken finean gorputzeko atal garrantzitsuetan"

Arartekoa eta gartzela

Sendagileari bezala Juan San Martini gose-grebari buruz galdera egin genion eta bere prentsa - bulegotik adierazi zuten Arartekoari inorez zitzaiola laguntza eske joan eta gainera bere konpetentzia ez zenez, ezin zuela ezer egin. Era berean, gartzelako zuzendariarekin hitz egiteko saiakerak egin dira Arrasate Pressen baina bere idazkaritzatik gose-grebaz ezin zuela ezer esan adierazi digute, Madrilera deitzeko.



DAMKART
Estetika eta Ileapaintzaile
Eskola
M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR



ZENBAKI

**ERRENTA ETA
ONDAREAREN
AITORPENA**

Basabe Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Bileri Etorbidea, 15
ARRASATE
Tfnoa: 79 75 99


**Monte
taberna**

Maalako errabala, 11 Tfnoa: 79 20 56



Pando

**PINTURAK eta
PAPERETAPENAK**
Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39



Juanjo Ruiz, ONCEko loteria saltzaileak **50 miloi banatu** zituen Arrasaten joan zen ostiralean. Zortedunak asko izan dira saria, oso banatuta gelditu da eta bait da saria. Zorionak guztioi eta gainerakoek zorte on hurrengorako.



Daniel Guridi zestako pilotari handia Arrasaten izan da aste honetan. Argazkian bere emazteareki, **Lili** filipinarrarekin ageri da. Ekainaren 21eko Pilotarien Batzarrerako berriz etorriko direla agindu digute, eta beharbada **Juan Kruz Guridi**, Danielen anaia ere etorriko da Mexikotik.



Pasa den ostegunean **San Pankrazio euskal jaia** ospatu zen Eskola Politeknikoan. Ekintza asko izan ziren: kirol frogak, tortila txapelketa, herri bazkaria, bertsolariak, kontzertua...

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

**MUSAKOLA
OSTATUA**

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

Izen
PROPIOAK



Pasa den astebukaeran Musakola auzoan jaiak izan dira. Egitarauaren barruan eta beste ekintzen artean, larunbatean, Musakolako **independentzia** eskatzen zuen manifestaldia izan zen. Gaiaren inportantzia kontutan hartuz, jendetza ikaragarria.

● **Hilaria Mendizabal**, Arrasateko amonarik zaharrena, pasa den larunbatean hil zen, ia 101 urte direla. Zubillagan jaio zen baina urte askotan bizi izan zen Arrasaten, bere seme bakarrarekin.

● **Arantzazu Izarze-laia**, 29 urteko arrasatearra, Loiolako Herri Irratian ilea zaintzeko produktu eta gomendioak ematen jardun da azken asteetan. Agurtzanek Bartzelonan ikasi zuen eta gaur egun Arrasateko Edertu ileapaindegian dihardu.

● **Jose Luis Ezkurra**, Mondrako lehendakari berria izenda dezakete gaur bertan. Nahiz eta oraindik ez ziurtatu, Bergarar hau izango da seguruenik Arrasateko futbol taldeko lehendakari berria. Orain 5 urte ere 4 urtetan zehar postu berean egon zen eta ATBko Mondragol programa aurkeztu du orain.

◀ Ostiralean, **Beti-Ona gimnasioan indar frogak** izan ziren. Pisu desberdinak zeinek gehiagotan jaso izan zen froga. Orduak eta orduak euren gorputzak lantzen sartzen dituztenek argi utzi zuten euren trebezia.



**Parques
y Jardines**

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

AEDK

bide luzea egin du 1983an sortu zenetik. Mahainguruak, hitzaldiak, literatur lehiaketak, emakume taldea, umeentzako larunbatero antolatutako ekintzak, udaleku irekiak, Euskalan, edota Arrasate Press eta ATB. Ekintza hauek herritarron eta erakundeen lankidetzari esker egin ahal izan dira. Hala ere, gaur egungo 620 bazkideak ez dira nahikoa. Aurrerantzean egin nahi duena lortzeko, ezinbestekoa du AEDk bere bazkide-kopurua nabarmen gehitzea, San Juanetarako

1.000

bazkide izatera iritsi arte. Bakoitzak ahal duen neurrian lagun dezake euskararen alde. Besterik ez bada, hiru hilabetez behin 1.000 PTAko kuota ordainduz. AEDn denontzako lekua dago, AEDk denon beharra du eta. Orainarte egindakoak erantzun ezin hobeia izan du herrian bertan eta, sarri askotan, eredugarri bihurtu da Euskal Herrian zehar. Egiteko dagoena, berriz, egindakoa baino handiagoa da. Ezina ekinez egiten dela ikasi dugu, eta gure asmoak errealitate bihurtzeko, guztion ekimena eta ilusioa behar ditugu, baita zeurea ere, lerro hauek irakurtzen ari zaren mondragoetar horrena. Zeu eta zureak ere izan zaitezketete eta, AEDko

BAZKIDE

AED ELKARTEA

BAZKIDE IZAN NAHI DUT

Izen-deiturak

Helbidea

Etxeko telefonoa

Moztu papertxo hau eta helbide honetara bidali:
AED, Pablo Uranga, 4 etxabea. 20.500 ARRASATE, edo 79 54 46 ifnora. deitu.

Franz Burkhart

Tigre artean hazi eta bizi den gizona



Franz Burkhart jaiotzez austriarra da, baina Arrasatera Medrano zirko alemaniarrekin etorri zen. Zirkoan jaio eta hezitako gizona, txiki txikitatik tigreen usain garratza, aho handia eta atzapar zorrotzak gertutik ezagutu dituena. Jaun-andreak zuekin, Medrano zirkoko tigre domatzailea.

— Zergatik domatzaile?

— Gurasoak, aiton-amonak eta haien guraso eta aiton-amonak ere zirkoan jaio eta domatzaile izan ziren. Txikitatik bizi izan dut giro hori eta, normala denez, horixe ikasi ere.

— Txikitatik zirkoan, asko aldatu al da?

— Ez, zirkoa ez da aldatu, jendea izan da aldatu dena. Lehen zirkoan orain baino askoz ere jende gehiago etortzen zen; orain, berriz, zirkoa ikusi beharrean jendeak nahiago du etxean gelditu eta sofan jarrita telebistari begira egotea.

— Beraz, zirkoa garai txarra igarotzen ari da?

— Beno, esango nuke hobeak makinatxo bat ezagutu ditugula. Begira, lehen telebistaren eragina aipatu dut, eta egia esan telebistak zirkoari kalte handia egin dio; baina, benetako zirkoari kalte handiagoa egin diote herrizherri ibiltzen diren zirko txikiak. Zirko txiki horiek, ezin dute gurea bezalako zirko handi batek eskaintzen duen ikuskizunaren parekorik eskaini eta ikusleak erre besterik ez dute egin.

— Zirkoan ondo irabazten da?

— Ez da diru gehiegi ateratzen, baina bizitzeko adina bai.

— Eta hainbeste ez ira-

bazteko, merezi du tigre pilo batekin batera kaiolan sartzeak?

— Tigreak arriskutsuak dira, ezin dut ukatu, atzapar zorrotz eta aho handiak izateaz gain, izaera oso aldakorra dute eta. Dena dela, txikitatik beraien artean ibiltzera ohituz gero, ez dago aparteko gizona izan beharrik domatzaile bihurtzeko. Badakit tigreak oso arriskutsuak izan daitezkeela, eta baztutan kaiola barruan eraso egin didatenean beldurra ere pasatu dut... baina horixe da irakatsi zidatena eta egiten dakidana. Lanean istripu

ugari izan dut, baina zorionez garrantzizkorik ez.

— Tigreak nondik atera dituzu?

— Lehen hirurak, harra eta bi eme, Safari-Park batean erosi nituen, gainontzekoak bertan jaiotakoak dira.

— Zirkoa beti hara eta ona, bizimodu gogorra, ezta?

— Gustatuz gero, ez. Bidaiatzea atsegin dut eta toki asko ezagutzeko aukera izan dut: Afrika, Ekialdea, Hegoamerika, Ipar Europa... Urtero, batz bestea, 10 - 14 estatu bisitatuko ditut.

— Hainbeste bidaiia egin behar izanda, nolakoak dira

zuen arteko harremanak?

— Zirkoan orain 145 pertsona eta 60 animalia daude eta gure arteko harremanak oso onak dira. Gainera harremanek onak izan behar dute derrigorrez, bestela oso zaila izango litzateke elkarrekin bidaiatzea. Zentzu horretan, zirkoan etxeetan baino elkartasun handiagoa dago.

— Eta familia?

— Emaztea eta semea neurekin daramatzat toki guztietara. Ni bezala, biak zirkoan jaiotakoak dira, txiki-txikitatik bizimodu hau ezagutu dutenak. Behar bada bizimodu hau umeentzat izango da latzena, zirkoko lanez gain ikasteaz arduratu behar izaten dute eta. Korrespondentziaz ikasteko aukera erabiltzen dugunez, orain ikasketak egiteko ez dago lehen zegoen beste arazo. Horretaz gain, toki batetik bestera ibili beharrik hizkuntzak ikasteko aukera eskaintzen du; nire semeak dagoeneko bost hizkuntzatan berba egiten du.

— Ikuslegorik onena?

— Onena zaila da esaten.

Esango dizut txarrena Afrikan aurkitu dudala, azal zurikoa izatearren harrika ere egin didate eta.

— Noizbait zirkoa lagatzeko asmorik?

— Bizi naizen bitartean ez dut lagatzeko asmorik, norbaitek behartuko banandu bakarrik utziko nuke. Europako Iparraldeko toki batzutan, Suedia, Dinamarka eta Noruegan esaterako, dagoeneko debekatu dituzte animaliak erabiltzen diren ikuskizunak. Ondorioz, aipatutako toki horietan bizi ziren domadorek lana utzi egin behar izan dute. Antzerakorik gertatzen ez bazait, hil arte tigre artean bizitzen segitu nahi nuke.

“Zirkoan etxeetan baino elkartasun handiagoa dago”

Gimnasioak: forman egoteko modako modua

Badator udara, bainujantzia soinean mendira edo hondartzara joateko garaia. Modaren aginduz, edo auskalo zergatik, gorputz lirain eta beltzarana izatea azal zuriska zein ondo betetako sabela baino hobeto ikusita dago. Batzuk berezkoa dute liraintasuna; beste batzuk, ordea, gimnasioetan ordu ugari sartuta lortzen dute.

S arreran aipatutako arrazoi estetikoak, ez dira jendea gimnasioetara joateko aitzakia bakarria. Osasuna zaintzea, kilo batzuk kentzea, gorputza indartu, beste kirol batzuen osagarria izatea edo eta errehabilitaziorako ariketak egitea izaten dira ohizkoenak. Arrazoi bat edo besteagatik, Arrasaten dauden bi gimnasioak kirola egin nahi duten gizon zein emakumez betetzen dira egunero. *Beti Ona* eta *Saioa* gimnasioetan dagoen eskaintza parekoa da: muskulazio tresnak, aerobic eta gimnasia ikastaroak, sauna, solarium-a, masaia, estetika eta, *Saioa* gimnasioaren kasuan, baita karatea ere.

Jendeak konstantzia gutxi


G imnasioetara jende asko joaten da; *Beti Onako* nagusiak zienez,

bere bazkide guztiak batera joanez gero, zerbitzua eskaini ezinik itxi beharrean aurkituko litzateke eta *Saioan* zenbat bezero dituzten galdetuta, bat batean erantzuna

eman ezinda geratu dira. Gimnasioetara urte osoan jende asko joaten bada ere, urte-sasoi guztiak ez dira berdinak izaten. "Guretzat -dio Balentinek, *Beti Ona*

gimnasioko nagusiak- sasoirik onena urtarriletik maiatza artekoa da. Jende gehienak pentsatzen du ekaina eta uztailean lan gehiago izaten dugula, baina eguraldi ona hasten denean jende gutxiago etortzen zaigu".

Kopuruaz hitz egin den bezala, maiztasunaz ere esan daiteke zerbait, jendea gimnasia joaten hasi eta gero zenbateraino egonkorra den jakiteko. Zentzu horretan, esan behar da jende gehienak hasieran urte-erdi edo urte osorako asmoa agertzen duela, gero errealitatean gehienek lau hilabete baino denbora gutxiago egiten badute ere. Beraz, argi dago jendeak erraz samar uzten dituela gimnasiotako lanak. "Hiru hilabetetan zehar egunero etorriz gero, posible da norberak nahi duen moduko gorputzaizaterairistea, neurri batean, noski. Behin hori lortzen denean, jendeak egun batzutan etortzen jarraitzen du, baina gero utzi egiten du. Izan ere, Euskal Herrian gimnasioekiko dagoen jokaera arraroa da es-




Gorputzaren atal bakoitzaren lanketarakotresnak daude gimnasioetan.

tatuko gainontzeko herrialdeekin alderatuz gero. Hemen jende gehiena, pisua galtzera edo gorputza hobetzera etortzen da, normalean fisikoki gaizki dagoen jendea etortzen zaigu gehien. Estatuan eta Europa osoan, berriz, gimnasioetara berez ondo daudenak joaten dira, mantenimendu gimnasia egitera”.

Lana helburuen arabera

Aipatutako bi gimnasioetan adierazten dutenez, emakume eta gizonezko bezeroen kopuruari dagokionez ez dago diferentziarik; joaten direnen erdia gizonezkoak eta beste erdia emakumezkoak ei dira. Hori bai, bakoitza berea egitera. Hau da: emakumeen gehiengoak aerobic-a egiten du eta gizonezkoenak, berriz, muskulazioa. Sauna, solarium-a, masaia eta gainontzeko zerbitzuez berdin samar baliatzen ei dira batzuk eta besteak.

Argi dagoena, beraz, jendeak gimnasia daraman bidea hartzen duenean oso helburu desberdinak izaten dituela. Helburu horien arabera, egin behar den lana ere ez da bera izaten. “Edozein pertsona etortzen zaigunean, lehenik zer egin nahi duen jakin behar izaten dugu, flakatu nahi duen bati edo gorputza gogortu nahi duen beste bati ezin zaio lan bera agindu eta. Ondorioz, dato-



Emakume gehienak aerobic-a egiten badute ere, badira salbuespen batzuk.

rrenari, duen helburuaren arabera aste osoko plana egin eta janari dieta berezia jartzen zaio”.

Giza harremanetarako gune

Gimnasioak jende askoren topaleku direla ai-

patu da hasieran eta, behin baino gehiagotan kalean entzun izan da jende asko gimnasioetara ligatzera joaten dela. Saioa eta *Beti Onako* arduradunei, hori gehiegi esatea dela uste dute, jendearen artean harreman berezia sortzen dela onartzen badute ere. “Gimnasioak 90. hamarkadako elkarte sozialak zirela esan zuen batek, eta ez zitzaion arrazoirik falta. Lehen jendeak taberna eta diskoteketetan ezagutzen zuen elkar, orain moda hori desagertzen ari da. Gimnasioan, eguneroko joan etorrian jende asko ezagutzen da eta baita lagun giroa sortu ere, jendea soltatu dadin bultzatzen saiatzen gara giroaz, gainera. Hortik jendea ligatzera etortzen dela esatera, alde handia dago”.

Prezioen gorabeherak

Gorputza behar bezala zaintzea garestia al da?

Diru kopuruez hitz egitea gauza erlatiboa den aldetik, ez da erraza aurreko galdera horri erantzutea. Dena dela, Gasteiz eta Donostiako gimnasio batzuetan dituzten prezioekin konparatuz gero, Arrasatekoak merkeagoak direla esan behar da. Bailadatik irten barik, Bergaran dauden gimnasioetako prezioak ere kontuan hartzekoak izan daitezke; are eta gehiago parekoak direla esaten bada. Beraz, Arrasaten forma onean egoteko prezioa, gutxi gora behera eta gimnasioan dauden baliabide guztiak erabiltzeko aukeraz, hilero 5.500 eta 5.700 PTA artean dagoela esan behar da.

Dena dela, aipatutako diru-kopurua asko igo daiteke gimnasioen inguruan sortu den produktu merkatuaz kapritxoaz izanez gero. Edari isotonikoak, jantzi bereziak, janari kontzentratuak... erosteko beharra sentitzen duenari forma onean egotea garestiago aterako zaio. Ez, ordea, gimnasioko zerbitzu normalez bakarrik baliatu nahi duenari.

PUB HAIZEA



• Txitxinpe •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



Datorren denboraldian lehen mailara igotzeko taldea osatu nahi dute arrasatearrek

Saski-baloi taldea sponsor indartsu baten bila

Aurtengoa dagoeneko bukatuta, datorren denboraldirako Arrasateko Saskibaloi taldea sponsor indartsu baten bila dabil, helburua lehen mailara igotzeko taldea osatzea da eta. Talde hori osatu eta oraingo barne-egitura mantentzeko, saskibaloi taldeak gutxi gora behera hamabi milioitako aurrekontua onar dezakeen sponsorra behar du.

Arrasaten orain 25 urte hasi arren saskibaloian jokatzen, baina 1983-84 denboraldira arte ez zen oso ondo antolatu. Aipatutako urtean kategoria desberdinetako talde guztiak egitura berean antolatu ziren. 1985-86 denboraldian, senior, jubenil, kadete eta emakumezko senior talde batek osatzen zu-

ten Arrasate Saski Baloi taldea. 1987-88 denboraldian, bertako jokalariz osatutako senior taldeak hirugarren mailara igotzea lortu zuen eta hurrengo denboraldian bigarrena. Lehen urte horretan maila galdu zenez, hurrengo denboraldirako estrategia aldatu eta fitxaketen bidea aukeratu zen. Orduan etorri ziren Txus Brizuela entrena-




tzailea eta kanpoko hainbat jokalaria. Azken bi denboraldira, bigarren mailako onenatarikoa dela erakutsi du taldeak.

Gaur egun, Arrasate Saskibaloi taldean, hamar talde federatu daude eta eskola mailako hamaika, gutxira 110 jokalaria federatu eta 110 haur; horretaz gain, 500 bazkide ere baditu. Taldearen egitura eta egoera ekonomiko sendoa, bigarren kategoriako taldearen maila, entrenatzailearen izena eta bailadan taldeak duen eragina kontuan hartuta jarri da datorren denboraldirako mailaz igotzeko helburua. Helburu hori gauzatzeko, sponsor indartsua lortzeaz gain, taldea bailada mailan hedatu egin nahi litzateke.

Hurrengo partidua

Azken ihardunaldian matematika kontuetan sartuta ibili dira Mondra taldearen inguruan mugitzen direnak. Kontu horien arabera, Mondrak kategoriari eusteko bi punturen beharra zuen. Nondik atera, hori zen kontua, azken aldean izandako aukera gehienak galdu egin zituzten eta. Joan den asteburuan beste aukera bat aurrean. Ez zen erraza, arerioak ezer jokatzen ez duenaren la-saitasuna zuen bere alde eta.



Partidu aurretik etxeko jokalaria eta ikusleengan urduritasuna nagusi, baita partidua hasi eta gero ere, lehen berrogeitabost minutuetan durangarrak jaun eta jabe izan ziren eta. Atsedendian gauzak beltz ikusten ziren, eta esker-erakordeak partidua erabakiko zuen gol-a lortzeko gai izan zenari.

Teorian denboraldia ez da amaitu oraindik, baina dagoeneko arrasatearrak amaitutzat eman dezakete, kategoriari eusteko helburua betetzea lortu dute eta. Ze diferentzia aurre-denboraldian maila igotzeko ezarri zen helburua eta igandetik iganderako errealtatearen artean!

Tira, zuzendaritzako barne-arazoak konpontzen badira baliteke datorren denboraldia hobea izatea. Esperantza behintzat ezin izango da galdu.

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

PODIUMA

Ramon Luengo

Futbola alde batera utzi ezinik

Arrasaten asko dira futbola maite dutenak eta Mondrari eta Arrasateko futbol munduari urte asko eskaini diotenak, Ramon Luengo ere, kasta horretakoa dugu. Orain hogeitama lau urte dauka Ramonek, baina futboleantzatzen hasi zenean, Zaldibarko Futbito Txapelketaren barruan, bederatzi besterik ez zituen. *"Lehen askoz ere jende gutxiago ibiltzen ginen Zaldibarko Txapelketan, baina giroa oso antzerakoa zen. Partiduak ikusten jende asko egoten zen eta bukatzen zirenean gehienak txikiteora joaten ziren; benetan giro ederra"*. Ramon Zaldibarko Futbito Txapelketan hasi zen jokatzeko eta aurtengo txapelketako edizioan garailetariko bat izan da, Argi Ibili taldeko partaide da eta. *"Zoragarria da txapelketa hori irabaztea, baina behin irabazita nahikoa da. Txapelketan parte hartu dutentalde guztiek, zein polita den ikusteko behin irabazteko aukera izan beharko lukete. Ni behintzat aurtengoarekin konformatzeko naiz"*.

Ramoni futbolarekiko zaletasuna familiaratik dator, bere aitona, Rafael Gabarain, Cesareo Gabarainen anaia, futbolaria izan zen eta. Ra-



faelek Tolosa taldean jokatzeko zuten eta noiz behinka Arrasatera ere etortzen zen, bere iloba futboleantzatzen ikustera. *"Izugarrizko ilusia egiten zidan aitona Zaldibarren ikusteak, asko animatzen ninduen"*.

Zaldibarren hasi eta gero Mondrako kategoria guztietako taldeetan jokatu zuten Ramon Luengok, hamasei-hamazazpi urte zituela Mondrako lehen taldearekin jokatzeko hasi zen arte. Erregionaletik preferentekoan eta preferentetik hirugarren mailako igoeretan hartu zuten parte Ramonek, baita zelai gainean dauden postu guztietan jokatu ere. *"Gauzarik ederrena egin ditudan lagun piloak izan da, duda barik"*.

Mondra utzi zuten, beste talde batzuetan jokatu eta orain Pedruskon dabil, aurreko denboraldian entrenatu zuten taldean. *"Entrenatzea ez zitzaidan bat ere atsegina egin. Jokatzeko beste gauza bat da, eta gainera gazteekin egiten ditudan harremanak primerakoak dira"*.

◆ Elizburu eta Urain garaile

Joxemi Elizburu eta Zigor Urain, Dorletako Ama taldeko txirrindulariek izugarrizko lasterketa egin zuten Eibarraren pasa den igandean eta baita garaipenarekin itzuli ere. Elizburu eta Urain tropela atzean utzita, bakarrik azaldu ziren Eibarko helmugan. Helmuga gurutzatzerakoan biak eskutik helduta sartu ziren eta horregatik epaileek deskalifikatu egin zituzten biak. Txirrindulari eta entrenatzaileengan tristura eta haserrea era berean. Ondorioz, egunen bertan Gipuzkoako Txirrindularitza Federakuntzan epailearen erabakiaren aurkako errekurtsioa ezarri zen. Astelehenean Joxemi Elizburu eta Zigor Urain garaile izendatuz etorri zen Federakuntzaren erantzuna.

◆ Arrasate Kirolak finalera

Hilaren 30ean Gipuzkoako Federazioa Sariaren finala jokatu da eta dagoeneko final hori jokatzeko sailkatzea lortu du Arrasate Kirolak eskubaloi taldeak. Arrasatearrek Errenteriako Oarso taldea izango dute aurrean eta oraindik ez da erabaki final hori non jokatu den.

Bestalde, CSK eta Mepamsaren arteko partidua 35 eta 24ko emaitzarekin bukatu zen, Moskutarren alde.

◆ Mondrako neskak ondo

Mondrako emakumezkoen taldea Gipuzkoako Kopa Txapelketa jokatzeko ari da eta oraindik ez du partidu bakar bat ere galdu. Joan den astean Zumaian jokatu zuten eta 1 eta 3ko garaipenarekin itzultzeko gai izan ziren. Arrasatearrei bi partidu falta zaizkie bakarrik Kopa Txapelketari bukaera emateko eta gauzak okertzen ez badira, finala jokatzea lortuko dute seguruen. Itxura denez, finalerako sailkatuko den beste taldea Anaitasuna izan daiteke.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99



PAZI-OLA SA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

Mendirako egun aproposak

Maiatzak 17, izugarrizko beroa hemen behelaldean. Goizean goiz jaiki, prakamotzak jantzi, egunerako jakiak motxilan sartu, autoa hartu eta Nafarroarantz. Altsasutik barrena, Etxarri Aranaz-era eta hemendik Lizarragako mendatera. 1.031 metroko altuera, aurrez aurre Sakanako bailada.

Behean sargoria zen nagusi eta hemen aide fin eta freskoak agintzen badu ere, autoa, bada ez bada, kerizpean utzi dugu. Errepide ondoko eskumako bidean aurrera eginez gero, Urbasako mendizerra arbolatsura joan gaitezke; ezkerrekotik, berriez, Andiakora. Jende gu-



txiago aurkitzearen, ezkerreko aukera egin dugu.

500 metrotako aldapa txiki bat igo eta derrepente begien aurrean izugarrizko lautada, joan eta joan egiteko horietakoa. Lautadan aurrera, haize izpirik ez. Oinez zein mendiko-bizikletaz

jende ugari, baita zaldi, behor eta behiak ere. Abereentzat egindako ur-putzuak aurkitzen ditugu, ixiltzen ez diren ugarixoz beteta. Bero itogarria lautada erdian, paisaia ere ez da oso entreten-

garria, albo bietara tontortoxoz inguratuta gaude eta. Bista nekatuta, lautada utzi eta tontorrez tontor joatea erabaki dugu. Igo eta izugarrizko sorpresa, begien aurrean San Donato eta hasierako haize fina, bere azpian Sakanako bailada zabala. Bista ederra, hamarretakoa lasai egiteko aukera.



Sabela bete, atsedena hartu eta inguruetako tontorretan ibili eta gero, berriro buelta. Lizarraga gainean eguzkia eta izerdia nagusi, autoa pil-pilean. Motxila hartu eta Urbasa alderako arbolape baten babesean bazkaria. Arratsaldea beste tontor baten eman dugu, amildegi erakargarrian erdizintzilik.

ALMEN ikastola

- Ikasleak bizitzan beharrezkoak izango dituen baloreak eta ahalmenak garatzen laguntzeko Heziketa Proiektua.
- Ondorengo ikasketen arrakasta ziurtatuko duen alde zuzeneko prestaketa lana.
- Irakaskuntzaren maila guztiak:
 - OHO
 - Batxilergo Orokorra
 - Goi batxilergoa
 - Zientifikoa
 - Humanistikoa
- III Mailako MODULU PROFESIONALA
- "Ekintza soziokulturalak"
- "Kirol ekintzak"
- Eredu guztiak: A, B, D

MATRIKULA-EPEA ZABALIK

Ordutegia: egunero 8.30etatik 5.30ak bitartean



ALMEN
IKASTOLA

Oharra: Gure proiektua hobeto ezagutu nahi baduzu hurbil zaitez edo deitu ALMENera.


Torrebasa z/g Tfnoa: 79 57 00 / 79 56 89

EUSKAL FAMILIETAN IKASI!!!

Euskara ikasten
ari zaretenentzako egonaldiak
euskal familietan.

Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen "Egonaldiak Familia Euskaldunetan"
1992eko plangintzan parte hartu nahi duten ikasleentzako arauak:

- Plangintza 1992eko **uztailetik irailera bitartean** gauzatzen da.
- Ikasle bakoitzaren egonaldia **HILEBETEKOA** izango da.
- Ikasleek **18tik 35 urtera** bitarteko adina izan behar dute.
- Parte hartu nahi duten ikasleek **inskripzio-fitxa bete** eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailera bidali behar dute. Inskripzio-fitxa jaso, berriz, bai Udaleko Euskara Zerbitzuan zein Udal Euskaltegian edo AEKn jaso daitezke.
- Inskripzio-fitxa aurkezteko azken eguna maiatzaren 29a da.
- Hartuko duen familiari **15.000 PTA** ordaindu beharko dizkio kasleak berak.
- **Langabetuei erreztasunak** emango zaizkie ordainketa egin ahal izateko.



Informazio gehiagorako, jo Udaleko Euskara Zerbitzura. Tfnoa: 79 09 00



ARRASATEKO UDALA

1992ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOA

A) LANPOSTU FINKOAKZenbat

- Aukea-ko gerente 1
- Enplegu teknikari 1
- Gizarte laguntzaile 1
- Hezkuntza teknikari 1
- Haur liburuzain 1
- Obra eta hirigintza teknikari 1
- Udaltzain 1
- Uretako ofizial 1
- Aukea-ko mantenu arduradun 1

B) ALDIBATEKO LANPOSTUAK (3 urte)

- Adm. orokorretako teknikari 2
- Euskaltegiko irakasle 6
- Gizarte laguntzaile 1
- Zerbitzu-inspektore 1
- Txoferra-elektrikari laguntzaile 1
- Peoi 2

GUZTIRA22 LANPOSTU

OHARRA: Dagokion hauteketa-prozesuetako deialdiak, garaiz iragarriko dira, oinarri-arauak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman ondoren.

Alkatea

◆ Bertsolarien eguna Almenen

Datorren 29an Eskolarteko Bertsolari Lehiaketa ospatuko da eta hori dela eta, kultur jardunaldia antolatu du Almenek. Goizez hasera eta erdiko ziklokoentzat Jon Iñaki Izarzelai izango dute txiste kontalari. Goi eta batxilergokoek berriz, Iñaki Mendigurenekin arituko dira solasean, Herri Liburutegian.

Hamaiketarik ordu bietara bitartean, Almeneko kiroldegian Mendizabal, Peñagarikano, Jon Sarasua eta Aitor Sarasua bertsolarien emanaldia izango dute. Gaijartzen Amaia, Saioa eta Agurtzane, batxilergoko ikasleak izango dira.

Horretaz gain, 2.30etan Eskolarteko bertsolari txapelketako bailarako kanporaketa izango da Arrasateko polikiroldegian. Guztira 140 ikaslek hartuko dute parte.

◆ Goikobalu Musikasten

Goikobalu Abesbatzak Errenteriako Musikaste Jaialdi famatuan parte hartuko du gaur. Arrasateko abesbatzaz gain, jaialdian Errenteriako Oñarri, Iruñeako San Jose, Durangoko Doinu Zahar, Gasteizko Cantilena eta Errenteriako Andra Mari Abesbatzak izango dira. Jaialdiari arratsaldeko 8etan emango zaio hasiera eta Kaputxinoen elizan burutuko da.

Txomin Altube

Pilotarien Batzarreko bultzatzailea

Txomin Altube bilbotarrak bizi osoa darama pilotaren munduan, nahiz eta sekula ez den pilotaria izan. Datorren ekainaren 21ean Pilotarien Batzarra burutuko da Arrasaten eta gauzak behar bezala joan daitezten arduratuko diren tariko bat da Txomin.

— Txomin, zer da Pilotarien Batzarra?

— Iparraldeko kopiatutako gauza bat da. Han urtero, pilotaren inguruan jai bat egiten da eta omenaldia eskaintzen zaie pilota munduan nabarmentzen direnei. 1985. urtean hori ikusita, inbidia apur bat sartu zitzaigun eta zaletu talde bati hemen gauza bera egitea bururatu zitzaigun. Horretarako elkarte bat antolatu genuen, urtero probintzia desberdin batean jaia antolatzeaz arduratzen dena.

— Nola mugitzen zarete?

— Elkartean eratuta gaudenez, bazkidego bat dugu, 400ekoa gutxi gora behera. Urteko helburu nagusia Pilotarien Batzarra-ren eguna antolatzeta izaten da, baina beste batzuk ere baditugu; esate baterako, pilota kultura-munduan sartzeaz arduratu nahi dugu, horre-



gatik urtero liburuxka bat ateratzen dugu, argazki zaharrez osatutako erakusketa antolatzen dugu... eta hiriburu bakoitzean pilotari eskainitako museo antzekoren bat eraiki nahi genuke.

— Aurtengoa zazpigarren Pilotaren Batzarra izango da, zergatik Arrasaten?

— Hasteko esan behar da, lehen aldia izan dela herri batek idatziz Pilotarien Batzarra bertan antola-

tzea eskatzen duena, orain arte gu geu joan gara eskaintzera eta. Bestetik, esango nuke betidanik nahiago izan dugula egun hori herri batean burutzea hiri batean baino, jendeak errazago hartzen du parte eta, jaia bereganatu egiten du. Azkenik, ezin da ahaztu Arrasatek pilota tradizio garrantzitsua duela.

— Eta zer egingo da ekainaren 21 horretan?

— Ekintzei hasiera emateko, Udaletxean ongietorria eskainiko zaie gonbidatu guztiei, gero meza izango da, ondoren asanblada eta argazki-erakusketaren inaugurazioa, eta bukatzeko bazkaria eta omenaldia. Omenduak? Askok, Arrasatek Arriaran I eta II, Zurdo, Altuna, Arenaza eta Guridi. Horretaz gain, Euskal Herriko probintzia bakoitzetik pertsona bat omenduko dugu.


— Zuk ere jaso zenuen omenaldia ezta?

— Bai, Iparraldean egin zidaten 1985. urtean, Ipar eta Hegoaldeko pilotari eta pilotazaleen arteko harremanak sendotzeko egin nuen lanagatik.

Emozioz betetako eguna izango da, niretzat behintzat.

“Pilota kulturaren munduan sartu nahi genuke”

Onduline



TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

ARRASATE
PRESS



77 05 65

Aste gazte

Sindikatu batek emandako datuen arabera, Estatu espainolean, langabetuen %50ek bakarrik jasotzen du prestazioa, Europako estatu batzutan langabetuen %100a babesturik dagoen bitartean.

Lana

- Bergarako Udalak Administrari-Laguntzaile lanpostu bat betetzeko deialdia egin du. Titulazioa: Eskola - Graduatu edo baliokidea. Epea: ekainak 1.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak Lantegi-Eskolako irakasle lanpostu bi betetzeko deialdia egin du. Titulazioa: Lanbide - Heziketa II industri arloan edo



delineazioa edo industri inginiari teknikaria. Epea: ekainak 1 (baseak: maiatzaren 12ko EHAAn).

Bekak

- Musika, dantza, antzerkia, ikusentzuneoak, arte plastikoak, errestaurazioa, artxibogintza, museologia, bibliotekonomia eta kultur kudeaketa arloetan espezializazio eta hobekuntza ikasketak egiteko bekak. Epea: ekainak 13.

Uda euskaraz

- Barnetegiak: ekainatik irailera arte aukera zabala duzu edozei mailetan euskara -klaseak hartu eta giro euskaldunetan bizitzeko. 2-4 asteko

iraupeneko egonaldiak. Informa zaitez.

- Egonaldiak euskal familietan: zure euskara hobetzeko modalitate hau aukeratuz gero, mugitu zaitez, izena emateko epea maiatzaren 29an amaitzen da eta.

- AEK bidaiak: kirola Guaran, Euskal Pirineoa oinez edo mountain-bikez, Sahara, Balearen belauntziz... uztaila eta abuztuan.

Lehiaketak

- Arrigorriagako jaiak iragartzeko kartel-lehiaketa. Koloretan, teknika libre. Formato bertikala, 70x50 zm. Sariak: 45.000 PTA eta hamarria. Epea: ekainak 19.
- "Udaberria" VIII olerki-lehiaketa. Euskaraz

zein gaztekeraz. Gai eta neurketa libreak, gehienez 150 lerro. Sari bakarria hizkuntza bakoitzeko: 50.000 PTA eta Keramika lan bat. Epea: ekainak 22.

Arteleku

- "Expresioa" mintegia. Pintura eta argazkigintzaren arteko parekatzea gatazka aztertuko da bertan. Ekainak 16 - 20. Sarrera libre.
- "Espazioa imajinatzea" mintegia. Ekainak 1 - 5. Matrikula: 5.000 PTA.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

• Bagara, ez gara, goazen Ikastetxe Publikoetara •

Arrasateko Batxilergo Institutua

Ikastetxe publikoa 1992-93 ikasturtea

IKASKETA ESKAINTZA

Batxilergoko 3 kurtso eta UBI.

Ohizko irakasgaiez gain, aukerakoak honakoak dira:

- 1.BBB: Frantsesa-Ingelesa
- 2.BBB: Erljioa-Etika / L.T.P.: Elikadura, diseinua, informatika
- 3.BBB: Aurrekoak eta ondorengoak:
 - A. Zientzia arloa
 - B. Letra arloa
 - C. Zientzia-letra arloa
- U.B.I.:
 - A. Zientzia-teknologia arloa
 - B. Arlo bio-sanitarioa
 - C. Giza-arloa
 - D. Linguistika arloa

EZAUGARRI OROKORRAK

- Inguruko batxilergo-eskola bakarra
- Euskal eta erdal adarrak maila guztietan
- Irakasgai bakoitzeko irakasle lizentziadunak
- Ordu-tegi trinkoa: goizeko 8.30etatik arratsaldeko 3ak arte.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: zinema, antzerkia, txangoak, argazkilaritza, kirolak: saskibaloia, igeriketa, ski-astea...

EKIPAMENDUA

Informatika gela, fisika, kimika, natur zientzia eta argazkilaritzako laborategiak, gimnasioa, bideo gelak, liburutegia.

AURREINSKRIPZIO EPEA

Maiatzaren 15etik 30era bitartean. Tfnoa: 79 44 47-37

MATRIKULA DOHAINIK



ETXEBIZITZAK

- Etxebizitza behar dut alokairuan. Tfnoa: 79 51 21.
- Ekainetik aurrera, ekaina barne, logela bat dugu alokagai ikasle etxebizitza baten. Interesatuek dei egin asteburuetan 94 - 630 85 40. Oso merkea.
- Bi neskek etxea behar dute alokairuan Arrasate edo inguruetan. Dei egin 79 31 00, 127 luzapenera. Gotzone edo Maite.
- Etxebizitza salgai. Sukalde-jangela jantzia, 3 logela bere armairuekin, egongela, komuna eta 2 terraza. Argitsua, eta bista ederrekoa. Prezio onean. Tfnoa: 79 93 42.
- Etxebizitza alokatu nahi dugu Arrasaten. Merke eta ona. Tfnoa: 79 21 09 Aitor.
- Laredon apartamentua alokatzen da uztailean. Hondartza ondoan dago. Tfnoa: 79 52 80.
- Uribe auzoan lokala alokagai. Dei egin goizez 79 84 37 tfnora.
- Etxea salgai. Terraza, garajea eta ganbara ditu. Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.
- Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da prezio onean. Tfnoa: 79 45 74.
- Bi oheko logela alokagai. Tfnoa: 79 07 73.

LANA

- Sukaldeko laguntzaile moduan lan egiteko gertu nago asteburuetan. Tfnoa: 79 24 58.
- Eskoriatzan klase partikularrak emango nituzke (matematika eta fisika). Talde txikietan (4koak gehienez). Erdaraz. Tfnoa: 79 34 26.
- FP2 mailako kimika irakatsiko didan norbait behar dut. Dei egin 79 50 53 tfnora.
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko euskaraz dakien emakumea behar da. Dei egin 8.30etatik aurrera 79 25 12 tfnora.

- Neska lizentziatu berriak klase partikularrak emango lituzke. Euskara eta ingelesekoak. Tfnoa: 79 04 07.
- Marrazketako klase partikularrak behar dira F1 mailakoa (erdaraz). Tfnoa: 79 24 33. Ander.
- Marrazketa diedrikoko klase partikularrak hartuko nituzke. Tfnoa: 79 79 04.
- Marrazketa linealeko klaseak emateko norbait behar dut. Tfnoa: 79 72 47.
- Emakume euskalduna umeak zaindu, etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- Pertsona nagusia zaintzeko andra euskalduna behar da Aretxabaletan. Dei egin 10etatik 12etara 79 55 02 tfnora.
- Frantsezeko klase partikularrak behar dira. Dei egin 8.30etatik aurrera 79 09 24 tfnora.

SALEROSKETAK

- Renault 4 zuri eder bat salgai. Egoera onean dago eta gainera merke. Dei egin 94 - 475 33 86 tfnora. Ikusi, asteburutan ikus dezakezu. Aprobetxatu!
- R-7 egoera onean salgai. Tfnoa: 79 31 20.
- Honda NS 125 F egoera onean salgai. Tfnoa: 79 97 48.
- Bost lagunentzako kanping-denda salgai. Tuboak aluminiozkoak ditu. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.
- HIFI kateko Sony TA-333 anplifikadorea salgai. Mikrofono-nahasle inkorporatua dakar. Oso egoera onean dago. Tfnoa: 945- 22 95 71. Oskar.
- Judoan edota karatean afizionatua bazara eta jantzia Kapemi (3) markakoa behar baduzu, dei bizkor 79 66 38 tfnora, gaueko 8.15tik 8.30etara maiatzaren 30a aurretik.

- Sanglas motorra egoera onean salgai, Yamaha 400 motorrarekin. Prezioa 100.000 PTA. Tfnoa: 77 04 48.
- Egurrezko Ferreki markako 24.000 kaloriako berogailua salgai. Tfnoa: 78 10 41.
- Bi gela bikoitzeko kanping-denda salgai egoera onean. Abanze handiz, pasilo eta guzti. Prezio onean. Dei egin 8etatik 10etara 79 56 06 tfnora.
- Allure modeloko Alpen Kreuzer karro-denda salgai. Gutxitan erabilitakoa. Tfnoa: 79 80 85.
- Trikitixa soinua erosi nahi dut. Merke bada, hobeto. Tfnoa: 79 12 00. Agurne.
- Salbat labea, arko izozgailua eta izozkien bitrira salgai. Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.
- DENON markako bi moduloko anplifikadorea eta 2x200 W irteera analogiko eta digitalak salgai. Dena oso prezio onean. Ez galdut aukera!! Tfnoa: 79 47 90. Javi.

DENETARIK

- Urrezko txapa aurkitu nuen kalean martxoaren 18an. Izena eta eguna jartzen ditu. Galdu duenak dei dezala 79 20 47 tfnora.
- Idoiari eta Joxe Juani. Zorionak, zuek bai balixo dozueta. Kuadrilakuek.
- Ikasle batek bidai-poltsa galdu du. Topatu baduzu utz ezazu mesedez Musakolako gasolindegian, guztiz beharrezkoa dut bertan zegoen materiala eta.
- Motxila gris bat galdu da. Aurkitu duenak dei egin dezala 79 07 18 tfnora.
- Ezkontzako urrezko eraztuna aurkitu dut, zurea bada dei egin 79 83 43 tfnora.
- Duela bi aste perladun urrezko belarritakoak galdu nituen. Topatu badituzu dei egin gaueko 10etan 79 21 03 tfnora.



ARRASATEN HILDAKOAK



Maria Bautista Caballero, maiatzaren 15ean. 83 urte.

Kanuta Arkauz Larrañaga, maiatzaren 16an. 81 urte.

Benito Arenaza Pagaldai, maiatzaren 16an. 74 urte.

Demetrio Gomez Luna, maiatzaren 16an. 73 urte.

Hilaria Mendizabal Etxebarria, maiatzaren 16an. 101 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Mari Kruz Kortabarria

Arrasate Pentsuak dendakoa



- Animalia bat? Katua.
- Pentsua urunduta ala urundu barik? Urundu barik, dena jaten delako eta uruna baino gustorago.
- Txoriak zaintzeko modurik onena? Eurekin hitz egitea.
- Gustoren ospatu duzun eguna? Aste Santuetako edozein.
- Bideoa gustatzen zaizu? Bai, noizean behin ikusteko.
- Eguneko momenturik onena? Goiza.
- Marrazki bizidunak? Bai, asko gustatzen zaizkit.
- Kirola egiteko ohiturarik? Ez, ez dut denborarik eta.
- Memoria ona duzu? Uste dut baietz.
- Lana aldatzekotan? Ospitalera joango nintzateke lanera.
- Egunkaria ala aldizkariak? Egunkaria.
- Eguzkirako betaurrekoak erabiltzen dituzu? Ez, eguzkiak ez dit molestutzen.
- Gozoki bat? Bonboiak.
- Egardia kentzeko, zer? Ura da onena.
- Etxeko lanetan gutxien gustatzen zaizun lana? Fregatzea.
- Asko joaten zara medikuarengana? Ez, zorionez ez.
- Hondartza ala igerilekua? Hondartza.
- Bezero gehien izaten duzun eguna? Antzera xamar egunero.
- Ovnietan sinisten duzu? Ez.
- Zure dohairik onena? Animaliak mimatzen jakitea.
- Baba zuriak ala gorriak? Gorriak.


Bertsotan

Buesa

1
Buesak sortu du nahiko zarata euskal kontuekin jada ikastolengan sortua dauka nahiko beldur ta ikara inglesa gora igo nahi du ta euskarari jarri traba Buesa jaun horrek ez du jakingo honako hau beharbada euskal hizkuntza gu euskalduna egiten gaituena da.

2
Gure hizkuntza indartzea da denok lortu nahi duguna baina Gasteizetik ez zaigu heltzen behar den argitasuna soilik dakigu orain inglesak duela lehentasuna nahiz Buesa den euskal hezkuntzan daukagun arduraduna bere eskutan ezingo dugu utzi gure etorkizuna.

AGURTZANE INURRATEGI



Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

LETE Toldoak

Kataide industrialdea, 14. pabiloia

- Arrasate: 79 23 83
- Bergara: 76 12 24
- Iurreta: (94) 681 76 19



Trenaren estazioa, 1919

Berriro ere erretratu zaharra dakargu aste honetan. 1919ko abuzturaino goaz, Mondragoen trenaren estazioa inauguratu zen eguneko da eta argazki hau. Inaugurazioa orduan izan arren, trena lehengo aldiz Mondragoera 1917an iritsi ei zen. Herri guztiak parte hartu behar izan zuen ospakizun hartan eta argazkian ere nabari den bero eta lehortearen hautsagatik ere, denak dotore puntuan

eta txaketak, burukoak eta etxean ziren jantzirik onenak aldean.

Herria atzetik zutela, pertsonaia inportanteak osatzen zuen aurrekaldeko zortzikotea: Eskumatik hasita, **Don Jose Joakin Arin**, Billabonatarra, garai hartan hemengo parrokoa zena eta 1936an Oiartzunen fusilatu zutena. Bere alboan, alkate jauna, **Don Juan Goñi**. Hurrengoa, kapela zuriz, Gobernuko Presidentea baino ez, **D. Eduardo Dato**, egun haundi horretan Arrasatera etorria. Berarekin berriketan doana **Melo Alcalde Gotzai Jauna**, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabak orduan osatzen zuten elizbarruti bakarreko gotzaia. Bere eskuma-

tara orduko **Gobernadore Zibila** eta **Gobernadore Militarra**. Kapelarik altuenarekin Diputazioko Lehendakaria, **Juan Elortza Jauna**, beste kargu militarren bat alboan duela.

Komitiba guztiaren atzean ageri den etxea, ezkerrekoa, "Ugarte y Compañía"ren lantegia zen. Inaugurazioaren ondoren, Zerrajerara abiatu ziren bazkaltzera.

Joan zen asteko Fotozaharreko Arantxa Landa zela jarri baguenen ere, Barrutia zen, eta Arantxa Landa egun horretan ez zegoen argazkian eta.

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65

ZALEKI

Urdaitegia
Oilaskotegia

Bañez Doktorea, 12
ARRASATE Tfnoa: 79 48 34



UXARTE


**Kafetegia,
gozotegia**

Gauetz irekita!!

JO TA KE!!

Bañez doktorea, 12
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

Gurutzegrama




Horizontalak

1. Inguruak
8. Arrasateko auzoa
10. (Ald.) Bat eta bat
11. Ganadu ohe
13. Lehena eta azkena
14. Atzikia, azpi adierazten du
15. Aluminioa
16. Kanpoaldea
18. Haurtzaroa

Bertikalak

1. Burrukatu
2. Zurgin
3. Iaz
4. Gar
5. Minez kexatuz
6. (Ald.) Neu
7. Abelgorria
10. Irla, Bermeo aurrean
12. Abade
16. Egilearen atzikia
17. Txakur




JUAN BAUTISTA AGORRIA

BIDEO-EMANALDIA

Robocop

Tokia: Monterron kultur etxea
Eguna: maiatzak 23, larunbata
Ordua: arratsaldeko 4.30etan
Prezioa: 50 pezeta
Sarrerak: Monterronen
Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea





Mondra-Gol

Igandean 10etan

Pasa den igandean Mondrak, Durangoko taldearen kontra irabazi ondoren bere sailkapena ziurtatu egin du hirugarren Mailan. Hala ere, ikusi egin behar, igandean Sodupen zer gertatzen den. Jokatzera bertara joan beharko dutenez, eta partidua arratsaldeko 6etan izango denez, Mondra-Gol saioa atzeratu egin beharko da, seguruenik 10etan izango da eta, 9etan barik.

Programa berezia

Abesbatzen topaketak

Igandea 9etan

Astelehena
9.50etan

Txatxaran

Arrasateko
tabernariak aztergai

Asteazkena
9.15etan

Ostiral Musikala

Txalaparta izango da
protagonista.

Ostirala
9.30etan

Programazioa

24

IGANDEA

9etan. **Programa berezia.**
Abesbatzen topaketak
10etan. **Mondragol.** J.L.
Ezurrak, Sodupe-Mondra
partiduaren laburpena es-
kainiko dizue.

25

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** In-
formazio boletina.
9.20etan, **Mondra Sport.** As-
teko kirolak komentatuko
dira bakoitzaren irudiak
ikusteko aukerarekin
9.45. **Programa berezia.**
Abesbatzen topaketak.
9.50. **Asteko zinea:** Asterix
Britainian.

26

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** Al-
bistegia.
8.20. **Erreportaiak.** Parapente,
Arrasateko "hondartzak" eta
Famili eta Gizarte Heziketa-
rako zentrua.
9.50. **Asteko zinea:** Asterix
Britainian.

27

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.**
Azken orduko informazioa.
9.15. **Txatxaran.** Arrasateko
tabernariak hurbiletik ezagu-
tzeko aukera.
9.50. **Asteko zinea:** Asterix
Britainian.

28

OSTEGUNA

8,8.30 eta 9etan, **Berriak.**
Egunean zehar bildutako
gaiak.
9.20. **ATBKetan.** Azken hiru
alditan irabazle izan den
taldea, beste talde baten
kontra lehian.
9.50. **Asteko zinea:** Asterix
Britainian.

29

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.**
9.30. **Ostiral musikala.** Txa-
laparta aztergai.
9.50. **Asteko zinea:** Asterix
Britainian.

Telebegi

Gauza jakina da herri-
telebisten mundua oraindik
arautu gabe dagoela eta la-
nean dihardugunak legega-
betasunean ari garela. Lege
hori ei datorreneko zurrur-
murrua ere aspalditxotik
bazebilen, baina oraingoan
badirudi benetan badatorre-
la zedozer.

Jakin ahal izan dudanez,
lege berriaren zirriborroak
kablez banatzen diren tele-
bistak bakarrik arautzen
omen ditu, uhinez banatzen
direnak -ATB barne lehen-
goan utziz. Edo okerrago
izan daitekeena -eta hori da
nire beldurra legean jaso-
tzen ez direnak legez kanpo
jarriz, hau da, ilegalak bihur-
tuz.

Egia esan, egon bada-
go horretarako motiborik.
Kablezko banaketak inber-
tsio handiak eskatzen ditu
eta horrekin sekulako nego-
zioak egin daitezke.


Enpresa instalatzaileak
formula ezberdinak ari dira
asmatzen herriak kablea-
tzeko, baina beti ere herrita-
rrak dira engantxea eta hile-
roko kuoten bidez inbertsioa
finantziatzen dutenak.
Pentsa, estatu osoa hartu
ezkero, zenbat diru mugitu
daitekeen hor.

Noski, uhinez bidez do-
han banatzen diren telebis-
tek negozio hori kolokan jar
dezakete. Telebista direnez
kompetentzia dira eta doan
direlako kuota ordaindu be-
harra hankaz gora botatzen
dute. Ilegaltasunak konpon-
duko luke uhinezkoen kon-
petentzia ezleiala.

MIKEL IRIZAR



OPEL ASTRA BERRIA



Puntuantzeko Injekziodun Astra motore-serie berria, potentzia handiagoa cm³-ko.

POTENTZIA ADIMENTSUA

*Imajinatu! Opel Kontzesionariak
Opel Astra berriaren potentzia
egiaztatzena gombidatzen zaitu.*

*Beti zurea,
Opel Astra.*



Mc CANBY

Imajinatu Astra motore berrien posibilitateak.
Imajinatu 82tik 150 CV-erainoko potentzia adimentsua.
Imajinatu, zeure ekonomian pentsatzen duen potentzia, eta eraginkorra, azken-azkeneko.
Puntuantzeko Injekzio Sekuentziala duena.
Ekologiaren adiskide, 3 bideko Katalisatzailea integratuta. Imajinatu, potentzia adimenarekin bat eginda. Opel potentzia duzu.

Gidatzeko atsegina dagoeneko ez da zilindrada-kontua, adimen-kontua baizik.
Egiaztatu zeure Opel Kontzesionari Ofizialean.
Gonbidatua zaude.

OPEL

BADAZU OPEL ASTRA-RIK 1.547.000 PZTA.*

OPEL ASTRA, ALEMANIako INJINERUTZA ETORKIZUNERAKO

* Fabrikatzeileak gomendaturiko prezioak (Penintsula eta Balearerako), garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne. Kopuru handiko salmentak ere bai. Eska informazioa zeure Opel Kontzesionari Ofizialari eta finantziario eta leasing-erako, ez ahaztu Opel Credit, Opel Leasing eta Opel Renting-en baldintza paregabeak.

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria
Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65



OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.